

***GRADUATU ONDOKO IKASKETETARAKO
BEKAK EDO LAGUNTZAK EMATEKO ARAUAK
EUSKADIKO DEMARKAZIOA***

2004ko abendua

1.- **ARAU HAUEN HELBURUA**

Portu, Ubide eta Bideetako Ingeniarien Kolejioko indarreko Estatutuetako 3. artikulua araberak Elkargoak, besteak beste, honako eginkizunak izango ditu:

3. Elkargokideentzat lanbide, kultur, asistentzia, prebentzio eta antzeko beste gai batzuei buruz interesgarriak izan daitezkeen jarduerak eta zerbitzuak sustatu eta antolatzea, eta ekonomi aldetik laguntzea.

4. Elkargokideen etengabeko prestakuntza sustatu eta bultzatzea.

19. Elkargokideen lanbide-interesen onerako izan daitezkeen beste eginkizun batzuk.

36. artikulua araberak Zuzendaritza Batzordeak, besteak bestek, hurrengo eskumenak izango ditu:

15. Demarkazioaren esparruan lanbide, prestakuntza eta kultur jarduerak antolatzea.

Hori guztia aintzat hartuta Demarkazioak, bere eskumenen esparruan, aldizka hitzaldiak eta ikastaroak antolatzen ditu; horien kostua, gainera, osorik edo zati batean bere gain hartzen du.

Alabaina, prestakuntza-arlo batzuetan Demarkazioak ezin du ikastarorik antolatu, egiturarik ez duelako edo interesa izan dezakeen elkargokide gutxi dagoelako.

Kasu horietarako, hain zuzen, Euskadiko Demarkazioaren Zuzendaritza Batzordeak beka edo laguntza batzuk emateko modua arautzen du, beste erakunde batzuen antolaketarako gaitasunaz baliatu eta Estatutuetan ezartzen diren helburuak bete ahal izateko.

2.- **GRADUATU ONDOKO IKASKETA MOTEN DEFINIZIOA**

Demarkazioaren beka jasotzen duten graduatu ondoko ikasketa mota hauek daude:

A - Bideetako Ingeniaritzako doktorego-ikasketak.

B - Bideetako ingeniarien lanbidearekin lotutako gaiei buruzko masterrak.

C - Bideetako ingeniarien lanbidearekin lotutako ikastaroak.

D - Bideetako ingeniariari zuzendutako gai buruzko mintegiak, hitzaldiak edo mahai-inguruak.

Zuzendaritza Batzordeak bakarrik erabaki dezake gai bat bideetako ingeniarien lanbidearekin lotuta dagoen edo bideetako ingeniariarentzat interesgarria izan daitekeen; halaber, Zuzendaritza Batzordearen erabakiak apelaezinak dira.

3.- BEKA EDO LAGUNTZA MOTAK

Zuzendaritza Batzordeak beka edo laguntza mota bi emango ditu:

- Zuzendaritza Batzordeak elkargokide guztiei emandako beka edo laguntzak, gutun edo zirkular bidez, graduatu ondoko ikasketak egiteko.
- Graduatu ondoko ikasketa jakin bat egin nahi duen baina gastu hori egiteko sarrera nahikoa ez duen elkargokideak eskatutako beka edo laguntzak.

Lehenengo motan, hau da, beka edo laguntza eskaintzeko bidaltzen den gutun edo zirkularrean berorren zenbatekoa eta emateko modua azalduko dira. Kasu bakoitza ebatzi ostean ezin izango da gai bererako laguntza berririk eskatu.

4.- BEKA EDO LAGUNTZA ESKATZEKO MODUA

Elkargokide batek 2. puntu zehazten diren graduatu ondoko ikasketetako bat egin nahi badu eta horretarako Elkargoari laguntza eskatzeko asmoa badu, Demarkazioko dekanuari idazki bat idatzi behar izango dio. Idazki hori ikasketak hasi baino lehen jaso behar izango da Elkargoan.

Idazkian ikasketen kostua justifikatuko du eta, era berean, horiek gauzatzeko zenbateko beka edo laguntza behar duen azalduko du. Bestalde, langabezian edo azpienpleguan dagoen eta karrera zein urtetan amaitu duen adieraziko du.

Ikasketetan matrikulatu ahal izateko ezinbestean beka edo laguntzaren bat behar dutenen kasuan, Elkargoaren erantzuna jasotzeko azken eguna zein den azalduko da.

Ikasketei buruzko dokumentazio guztia eta Zuzendaritza Batzordeari laguntza onetsi edo ukatzeko erabakia hartzen lagunduko dion beste edozein informazio emango du.

Premiazko kasuetan idazkia FAX bidez bidali ahal izango da Elkargora, baina gainerako dokumentazioa postaz bidaliko da geroago.

5.- BEKA EDO LAGUNTZA EMATEA

Beka edo laguntzen eskabide guztiak Zuzendaritza Batzordeak egiten duen lehen bilkurako aztergaien zerrendan sartuko dira; baina eskabidea bilkuraren deialdia egin ostean jaso bada eta premiaz ebatzi behar bada eguneko aztergaien zerrendatik kanpo azalduko da.

Beka edo laguntzaren bat eman baino lehen, Zuzendaritza Batzordeak eskatzailea langabezian edo azpienpleguan dagoen edo karrera azken bost urteetan amaitu duen aztertuko du. Horietako baldintza bat ere ez bada betetzen, beka edo laguntza soilik emango da arrazoi oso bereziak eta justifikatuak daudenean.

Zuzendaritza Batzordeak azaltzen den bilkuran bertan ebatzi behar izango du eskabide bakoitza, erabakiak hartzeko dokumentazioaren bat falta denean bakarrik atzeratu ahal izango baitu erabaki hori.

Bekaren edo laguntzaren gehieneko zenbatekoa ikasketen kostu osoaren %50 izango da; nolana ere, dedikazio eskusiboa behar denean (doktoregoa edo master batzuk) kontzeptu horregatik hilean zenbateko jakin bat ere eman ahal izango da.

Gehienez 3.000 €-ko beka edo laguntzak onesteko Zuzendaritza Batzordeko kideen gehiengo soilak behar izango da, eta zenbateko hori baino gehiagoko beka edo laguntzak onesteko Zuzendaritza Batzordeko kideen bi herena.

Dekanoak 600 € baino gutxiagoko laguntzak edo beka emateko eskumena izango du, erabaki hori Zuzendaritza Batzordea bildu baino lehen hartu behar denerako. Horrela denean, gainera, dekanok hurrengo bilkuran emango dio erabakiaren berri Batzordeari.

Beka edo laguntza ematean, Zuzendaritza Batzordeak kontraprestazio batzuk eskatu ahal izango dizkio elkargokide onuradunari, hala nola: ikasketako dokumentazioaren kopia emateko edo gai horri buruz Elkargoan hitzaldi bat emateko.

6.- BEKA EDO LAGUNTZAREN ORDAINKETA

Beka edo laguntza ematea erabakitzen denean elkargokideari horren berri emango zaio, eta honek gastu guztien ordainagirien fotokopiak aurkeztu behar

izango ditu. Bada, ordainagiria sinatu eta berehala ordainduko zaio beka edo laguntzaren zenbatekoa.

Hileroko laguntzak eman badira, hauek hilabete bakoitzeko azken egunetan ordainduko dira.

7.- ZUZENDARITZA BATZORDEAREN ESKUMENAK

Arau hauetan ezartzen diren beka edo laguntzei dagokienez, Zuzendaritza Batzordeak honako eskumen hauek izango ditu:

- A - Eskatutako bekak edo laguntzak eman edo ukatuko ditu, beste kasuren batean eredutzat hartu gabe.
- B - 5. idatz-zatian zehazten diren zenbatekoak aldatuko ditu.
- C - Behar izanez gero arau hauek aldatuko ditu.

8.- ARAU HAUEN PUBLIZITATEA

Zuzendaritza Batzordeak arau hauek onetsi ondoren Demarkazioko elkargokide guztiei bidaliko zaizkie, horien berri izan dezaten. Halaber, izena ematen duen edo Euskadira etorriko den elkargokide berriari ere emango zaizkio.